

HOSTOAK ERORI ARREN

“Amets, kolorez jantzirik,

beldurrik gabe zatoz nigana!”

xuxurlatuz Gari baizinan

bazatoz maitaleen txokora...

Gau honetan ere hauteman dezaket

neu izango naizela hautatua

- gainerako maitaleen baimenaz, jakina -

idatzia baitago nire patua...

Beste behin, hamaika begi

jeloskorren aurrean,

zure beso gihartsuek

babesa didate eskaini...

Beste behin, abia bizian,

zure ezpain haragitsuek

nire azaleko tatuaiarekin

ozenki dute talka egin...

Betidanik gertatu zaizu atsegina

nire azaleko tatuaiak, aia,

ortzadarraren margoz jantzia,

errusiar matriuska panpina

eredutzat duen irudi garbia...

Hots, tinta azalpean ereinaz

bizitza osorako ernaldutako hazia,

oroitzapen ezabaezina, alegia...

Aintzina hondartza galdu batean

lurperaturiko altxorraren bila

dabilen kortsario zaharra dirudizu

harat-honat mapa eskuartean...

Zure sakon-sakoneko sustraiak

idoro guran etengabe temati...

Bilaketa horretan neu nauzu gidari

altxorraren mapan bilakaturik!

Hurtzaro urrunean ikastolan

elkar ezagutu genuenetik

ez gara banandu sekulan...

Udazkenaren negarrarekin

gure arteko harremana agian

hostoz larrugorritu zitekeen arren,

enborrak sendo darrai zutik

neguari aurre egiteko gertu!

Zure hatz jostalariak trebeki

nire gorputza dute biluztu

beste behin, emeki-emeki...

Goitik beheraino naute miatu

beste behin, ezker-eskubi...

Hasierako ukitu herabetiak

berehalakoan dira bilakatu

fereka adoretzu eta ausartak!

Gure arteko maite-sua

ez da beraz itzaldu:

betierekoa izateko sortua

sutsu bezain osasuntsu dirau...

Bat bera da bion helmuga

gure ibilbideak uztartu zirenetik,

bat bera bion helburua

katerik gabeko gatibu garenetik!...

Laztan ugari eta gero,

azken indarrak ahitzear,

so egin nauzu xaloki:

“Gabon, *Xabi*ertxo kuttuna!”,

erran didazu eztiki,

gainerako liburuen alboan

maitekiro apalean utzi

eta argia itzali aurretik...

IXAKA